

# Hausturaren poeta

**G**ABRIEL ARESTI POETA BILBOTARRA bere garaiko idazlerik berritzailena bihurtu zen idazteari ekin orduko. Familia abertzale batean jaio arren, gurasoek euskara galdu zuten, hala, umetan gaztelania izan zuen ama hizkuntza. Euskal literaturako idazlerik polemikoenaren izena bere bizkar hartu zuen berehala, sasoi hartako idazleen joeraren aurka gogor egin baitzuen. Ordura arteko euskal poesiagintzak ildo tradizionalari eutsi zion. Arestik, berriz, bide berriak zabaldu zituen, eta euskal poesiagintza berriaren oinarriak jarri zituen.

1933ko urriaren 14an jaio zen, Bilbon, Gabriel Aresti idazlea. Bilboko Berastegi eskolan egin zituen lehen hezkuntzako ikasketak. Urte latzak ziren haiek, gerra osteko gose garaiak baitziren Euskal Herri osoan. Gazte-gaztetik izan zuen irakurzaletasun handia. Hala, Marques del Puerto kaleko liburutegira joan ohi ziren anaia eta biak, eta orduak igarotzen ohi zituzten liburuak irakurtzen. Hamabi urte zituela merkataritza ikasketak hasi zituen, eta horrekin batera sortu zitzaion euskara ikasteko gogoa, familia giroaren eraginez neurri handi batean. Gurasoek euskara galdua izanagatik ere, giro abertza-

lean bizi baitzen Gabriel Aresti. Eta euskararekiko begirune handia zuelako euskara oso ongi menperatza heldu zen. Oro har, hizkuntza guztiekiko arreta berezia jartzen zuen. Izan zituen irakasleen artean Alfontso Irigoien nabarmendu zen. Labaienek Arestiren euskararekiko grinaren berri eman zion Irigoieni gutun baten bidez, eta hortik aitzinera, Irigoienek eta Arestiren arteko harremana sendotuz joan zen.

Soldadutza Bilbon egitea egokitu zitzaion Arestiri, eta horrek Euskaltzaindira joateko aukera eman zion. Han sortu zitzaion, Irigoienek eskutik batik bat, literatura klasikoarekiko maitasuna. Gaztaroan Bilboko La Concordia kafetegian egin ohi ziren literatura mintzaldietara joateko ohitura hartu zuen Juan Mari anaiarekin batera. Han ezagutu zituen, bertzeen artean, Emiliano Serna, Blas de Otero, Vidal de Nicolas, Laso, Gabi del Moral, Ibarrola... Alfontso Irigoienek eta Gabriel Arestik jarrera bertsua azaltzen zuten solasaldi haietan, eta

eurak ziren euskara erabiltzen zuten bakarrak. Garai hartarako, artean

ezer argitaratu gabe zuela, Gabriel Aresti ezaguna zen euskaltzaleen artean. Hain handia zen bere euskaltzaletasuna, non gaztelaniaz euskaldun peto-petoez moduan hitz egitera heldu zen.

## Poesia berritzaila

1954. urtean ekin zion ibilbide literario emankorrari. *Euzko Gogoa* aldizkarian argitaratu zuen bere lehen poesia: *Dance dans la prière*. Ondoren, *Irisarren olerkiak* poesia bilduma argitaratu zuen. 1956. urtean Zorrotzako kaian hasi zen lanean, eta hango esperientziak behin baino gehiagotan bihurtu zituen poesia. *Euzko Gogoa*-n ez ezik, *Egan* aldizkarian ere argitaratu zituen beste zenbait idazlan.

Garai hartako euskal poesia Orixe, Erkiaga eta antzeko beste zenbait autoreen esku zegoen. Poesia hura tradizionala zen, formaren eta edukiaren jarraipena bultzatzen zuen. Finean, gerra aurretik egiten zen poesia egiten zuten, eta ildo berari jarraitu zioten

hainbat idazlek, Telesforo Monzonek eta Salvatore Mitxelenak adibidez. Beste muturrean euskara literarioaren batasuna eskatzen zuen mugimendua zegoen, Federico Krutwig zegoen multzo horretan. Euskarazko literaturan Lapurdiko euskara klasikoa erabiltzearen alde zeuden, eta haien filosofiarekin bat egin zuen, besteak beste, Jon Mirande idazleak.

Gabriel Arestik azken aipaturiko idazleen bideari jarraituko zion, eta poesia hizkuntzaren ariketa huts gisa erabili zuen hastapenean. Hala, balio linguistiko handiko poesia egin zuen. Era berean, eta ordu arteko euskal idazleen mesfidantzari muzin eginez, beste herrialdeetako poesia eta idazleen lanak ezagutzeko grina izan zuen. *Maite gurpila* lana, adibidez, J.P. Sartreren *Huis clos* lanean oinarrituta osatu zuen.

## Herri poesia, garbizaletasunaren eta arrunkeriaren gainetik

1957. urtean Euskaltzaindiko kide hautatu zuten, euskararen alde egin zuen lan eskergaren ondorioz. Hurrengo urtean kaleratu zuen lehen liburua: *Maldan Behera*. Hura izan zen hastapeneko poesia berritzailako azken lana. Harrezkero, beste norabide bat hartuko zuen bere literaturak. Bertsolaritzarekin jarriko zen harremanetan, eta bizkaierari helduko zion. 1959. urtean argitaraturiko *Bizkaitarra* lanarekin eten zuen *Maldan Behera* liburuarekin hasiko bidea. Handik aurrera gai sozialei buruz hasi zen idazten, eta Bizkaiko euskara erabiliko zuen. Aldaketa hori hainbat arrazoi zirela-eta gertatu zen, baina batez ere *Maldan Behera* liburua -linguistikoki balio handiko lana izan arren- inor gutxi ulertu zuelako heldu zion Arestik literatura egiteko beste modu bati. Bera idazle izateko arrazoia gauzak aldatzeko nahia baitzen.

Abagune horretan idatzi zuen *Harri eta herri* lana. Lan horrek eman zion hasiera euskal poesia berriari, eta, gainera, jende askok irakurri zuen. Obra horrekin garbizaletasunaren eta arrunkeriaren arteko gezurrezko ezberdintasuna salatu zuen Gabriel Arestik. Bien bitartean, benetako herri poesia egiten hasi zen. Euskal poesiari Europako edota Espainiako literatura modernoaren elementuak gehitu zizkion, eta ez zuen horregatik poesia tradizionala baztertu. Era berean, euskara eta haren inguru kulturala sakonki aztertzeari ekin zion. Horren guztiaren ondorio da 1970. urtean argia ikusi zuen *Harrizko herri hau* lana. Modernitatea eta tradizioa maisuki uztartzen jakin zuen.

Aipatu beharrekoa da, ordea, lan hori ez zela posible izango garai hartako euskal idazle gazteen taldeak egin zuen ekarpenik gabe. Lan horren guztiaren ondorena Arestirengan islatu zen. Idazle, poeta, kazetari eta euskaltzale amorratu handi hori 1975. urtean hil zen, gaixotasunak jota.

• Jon Abril / Ainhoa Oiarzabal •



## Obra aipagarrienak:

**Poesia** ♦ *Maldan Behera* (1958-59), *Bizkaitarra* (1959-60), *Zuzenbide debekatua* (1961), *Mugaldeko errian eginiko tobera* (1961), *Harri eta Herri* (1964), *Eta gure heriotzeko orduan* (1964), *Euskal Harria* (1965), *Harrizko herri hau* (1970), *Obra guztiak. Poemak* (1976).

**Antzerkia** ♦ *Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Madalenaren seme santua* (1963), *Beste mundukoak eta zoro bat* (1964), *Justizia txistulari* (1965), *Mundu munduan* (1965).

**Obra gramatikalak** ♦ *Batasunaren kutxa* (1970), *Hiztegi tipia* (1973).

**Bere hitzekin eginiko kantak** ♦ *Arri eta bide, Bein batez, Apur dezagun katea, Egun da Santi Mamiña...*